

Tolosako lehen osoko bilkuran banatu dituzte karguak eta ordainsariak

Tolosako Udala hiru alor nagusitan banatu dute: Herritarrak, Antolakuntza eta Lurraldea // 2

Finalean Jokin Etxeberria izango da eskualdeko ordezkaria

Euskal Herriko Segia Txapelketako finala igandean jokatu da, Asteasun // 7

Asteburukoa eta gero, Tolosaldea laugarrenera // 6



INGO TERRADILLOS

SAHARA 29 HAUR, BI HILABETEZ

Tolosaldeko familia ezberdinetan nahiz Hernialdeko aterpetxean banatuta pasako dute uda, 9 eta 12 urte bitarteko 29 sahararrek. Ostiralean harrera beroa egin zieten Amasa-Villabonan, eskualdeko udaletako ordezkariak, Tolosaldea Sahararekin eta Maiatzak 20 elkarteak eta baita harrera familiek ere // 3

PISU BERRIAK VILLABONAN Bisitatu pisu pilotuak!



Kale Berria 48

3 logela + 2 bainugela 205.000€ tik hasita

Azken etxebizitzak!



Maiatzaren Lehena Plaza

3 logela + 2 bainugela 235.000€-tik hasita

Garaje itxiak ere aukeran.

Josu Artutxa Dorronsoro

Batetik, Udal Korporazioko kideen arduren banaketak zehaztu zituzten. Bestetik, uda aurretik ohikoa izaten den kreditu aldaketa bat onartu zuten. Ostiralean hartutako erabakiek, hein handi batean, agintaldian zehar Tolosako Udalak izango duen lan dinamika markatuko dute. Olatz Peon alkatearen esanetan, «udal administrazioa garai berrietara egokitzea, eguneroko jardunean eta erabakiak hartzerakoan eraginkorrak eta azkarrak izatea eta gardentasunaren alde urratsak egitea ahalbidetuko du egitura berriak».

Hori dela eta, informazio batzordeak eratzea eta haien araubideak zehaztea onartu zuten. Aurrerantzean, beraz, hiru lan arlo nagusitan banatuko dira orain arteko batzorde guztiak: Herritarrak, Antolakuntza eta Lurraldea. Nerea Letamendia, Xabier Balerdi eta Begoña Tolosa izango dira, hurrenez hurren, batzorde horietako arduradun nagusiak. Batzorde Iraunkor bakoitzak, berriz, zazpi zinegotziz osatuko da: EAJko hiru, EH Bilduko hiru, eta PSE-EEko bat. Batzorde bakoitzak, gainera, zenbait sail eta azpisail hartzen ditu bere gain, eta udal gobernu kideak izango dira horien arduradunak.

Oposiziotik abstentziorako botoa aurkeztu zuten, presaz hartutako erabakia izan delako. «Jakitun gara, berrantolaketa honek, politikoki nahiz tekniko ki onurak ekar ditzakeela, eraginkortasuna eta koordinazioa areagotuz eta burokrasia murriztuz. Baina, aldaketa handia suposatuko du. Hilabeteetako lanketa eskatzen du, erabakia orain hartu beharrik gabe. Onurak ekarriko dituen moduan, ez du oposizioa lana erraztuko; ezingo dugu orain arte bezala lan egin. Gainera, informazio falta dago, batez ere, liberatuta egongo diren zinegotziek zein aukera izango dituzten jakitea falta de-



Udal gobernuko ordezkarien botoekin soilik onartu zen lanerako egitura berriaren proposamena. JOSU ARTUTXA

Datozen lau urteetan, hiru lan arlotan banatuko da udala

Ostiralean egin zuten zinegotzi berrien lehen osoko bilkura. Antolaketara bideratutako saioan, dedikazio eskusiboan jardungo direnen soldatak onartu ziren.

lako», azaldu zuen Kristina Pelaez EH Bilduko ordezkariak.

Ohiko osoko bilkuren egutegia eta egutegi instituzionala ere zehaztu zituzten. 2023ko maiatz bitarteko bilerak hileko azken ostegunetan, 19:30ean, egitearen alde azaldu ziren gobernu kideak. Abuztuan ez da osoko bilkurarik izango, eta osteguna jaieguna egokituz gero, bezperan egingo da batzarra. Kasu honetan ere, abstenitu egin zen EH Bildu. «Egoki ikusten dugu, udaleko lana bizitza profesionalarekin uztartzeko. Hala ere, egutegi honek gobernuaren antolaketa

berriari erantzuten dio. Egitura horrek guri sortzen dizkigun kezkak direla eta, ez dugu aldeko botoa emango», azaldu zuten. «Tolosari balio erantsia emango dion administrazioa izatea nahi dugu. Udala, herritarren zerbitzura jarri nahi dugu, eta ez alderantziz, orain gertatzen den bezala», erantzun zuen Peonek.

ORDAINSARIEZBERDINAK

Alkatearen eta liberatutako zinegotzien soldatei dagokienez, oposizio kideak abstenitu ondoren onartu zituen udalak kopuru berriak. Horrez gain, bestelako dieta batzuk ere izan zituzten hizketagai. Besteak beste, ohiko osoko bilkuretan parte hartzeagatik, 400 euro jasoko ditu zinegotzi bakoitzak. Gainerako Batzordeen bileretan parte hartzeagatik ere, zenbait ordainsari jasoko dituzte zinegotziek.

Gainera, aho batez onartu zuten agintaldi berrirako bi lanpostu berri sortzea: alkatearen idazkaria eta aholkularia. Lehenak, 40.943,70 euro gordin jasoko ditu urtero. Bigarrenak, berriz, 41.841,87 euro gordin. Horrez gain, beste erakundeetan udala zein zinegotzik ordezkatzeko duen ere adostu zuten.

DEKRETUAK ETA KREDITUAK

Alkateordeen berri ere eman zuen Peonek. Lehen, Nerea Letamendia izango da; bigarrena, Patxi Amantegi; hirugarrena, Begoña Tolosa; eta laugarrena, Xabier Balerdi. Lau horiek, Olatz Peon alkatearekin eta Joxe Mari Villanuevarekin batera osatuko dute Tokiko Gobernu Batzarra. Bestetik, batzordekako kargu banaketaren berri eman zuten.

Osoko bilkuran, 2019/11 kreditu aldaketarako espedientea nahiz 2019ko diru-laguntzen eranskina aldatzeko proposamena behin-behineko onartu zituzten. Bietan ere, «kezkak eta informazio falta» azaldu zuten EH Bildutik. Azkenik, itxitako ekitaldiko fakturen onarpenaren eta zenbait Alkatetzak Dekreturen berri ere eman zen.

KARGU BANAKETA BATZORDEKA

Herritarrak

Batzordeburua. Nerea Letamendia.
Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna. Olatz Peon.
Garapen Ekonomikoa eta Enplegu Sustapena. Begoña Tolosa.
Turismoa, Merkataritza eta Azokak. Nerea Letamendia.
Euskara eta Euskaltegia. Xabier Balerdi.
Hezkuntza. Koldo Ormazabal.
Kirolak. Joxe Mari Villanueva.
Kultura eta Festak. Izarne Iglesias.
Gazteria. Koldo Ormazabal.
Komunitatea eta Gobernantza. Koldo Ormazabal.
Berdintasuna. Olatz Peon.

Antolakuntza

Batzordeburua. Xabier Balerdi.
Idazkaritza Orokorra, Kontratazioa eta Ondarea. Xabier Balerdi.
Giza Baliabideak. Xabier Balerdi.
Informatika. Xabier Balerdi.
Erregistroa, Informazioa eta UDA-TE. Xabier Balerdi.
Ogasuna eta Finantza Administrazioa. Begoña Tolosa.
Hiritarren Segurtasuna eta Mugikortasuna, eta Udaltzaingoa. Xabier Balerdi.

Lurraldea

Batzordeburua. Begoña Tolosa.
Hirigintza. Egoitz Sorozabal.
Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoa. Patxi Amantegi.
Obrak eta Zerbitzuak. Patxi Amantegi.

71.287€

ALKATEAREN SOLDATA

EUDEL en irizpideei jarraituz, Olatz Peon Tolosako alkateak, urtero, 71.286,99 euroko ordainsaria izango du. Soldata hori, Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritari dagokion berdina da. Alkateak, gainera, dedikazio eskusiboa izango du udaletxean.

7

LIBERATUTAKO KIDEAK

Alkateaz gain, Herritarrak, Antolakuntza eta Lurraldea Batzordeetako buruak, %100eko dedikazioan ariko dira, eta urtero, 57.029,59 euroko ordainsaria izango dute. Kirol zinegotzia ere dedikazio eskusiboan ariko da, urtero, 53.465,24 euro jasoko dituelarik. EH Bilduko bi zinegotzi ere %100eko dedikazioan ariko dira, eta urtero, 48.118,71 euro jasoko dituzte ordaintan.



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus-en**

Ongietorri beroa sahararrei

Tolosaldean 9 eta 12 urte
bitarteko 29 haur egongo dira,
familietan nahiz Hernialdeko
aterpetxean, bi hilabetez

Iñigo Terradillos Gaztañaga

Uda eskualdean igarotzera etorri diren neska-mutil sahararrei ongietorria egin zieten iragan ostiralean Amasa-Villabonan. Dantzarekin eman zieten hasiera ongietorri ekitaldiari. Oinargi dantza taldekoek saio polita eskaini zieten Errebote plazara gerturatu zirenei, eta bereziki saharar gazteei. Hala, euren bandera eskuan hartuta, beraiekin dantzatzera ere gonbidatu zituzten.

Dantzaren lekukoa hartu zuen udaletxeko ekitaldiak. Bertan batu ziren Tolosaldeko udaletako ordezkariak, Tolosaldea Sahararekin eta Maiatzak 20 elkarteetako kideak, harrera familiak edota eskualdean bizi diren hainbat saharar. Beatriz Unzue Amasa-Villabonako alkateak hartu zuen hitza, Oporrak Bakean programaren «garrantzia» azpimarratzeko, eta elkarteen eta harrera familien lana eskertzeko. Aurten 16 gaztetxo egongo dira Tolosaldeko harrera familietan, eta beste 13 Hernialdeko aterpetxean. Harrera familien kudeaketa Tolosaldea Sahararekin elkarteak burutzen du udaletako gizarte zerbitzuekin batera, eta Maiatzak 20 elkarteak arduratzeko da aterpetxean egongo diren haurren kudeaketa eta zainketaz.

Bestalde, Amasa-Villabonako alkateak saharar herria, «herri zapaldua» dela gogoratu zuen: «Euren lurrak lapurtu zizkieten, erbestera alde egin beharra izan zuten, eta ondorioz, errefuxiatuen kanpalekuetan bizi dira baldintza gogorretan». Hala, «arazo politikoa» dela adierazi zuen Unzuek: «Tolosaldetik argi dugu, sahararren autodetermi-

nazio eskubidea defendatzen dugu, eta errekonozimendua eta babes osoa azaltzen diogu Fronte Polisarioari. Askatasunaren aurrean zuen ondoan egongo gara beti».

ELKARTASUN LASTERKETA

Ekitaldia amaituta, eta gaztetxontzat oparitxoak banatu ostean, udaletxetik kanpo jarraitu zuten ekimenek, Oria ibaian. Izan ere, Oria Merkatarik elkartek antolatuta, elkartasun lasterketa burutu zen bertan. Zubimusu eta Erniobea ikastetxeetako ikasleek material biodegradagarriaz erakitako 2.000 txalupatxo jaurti zituzten, zenbaki banarekin. Azken egunetan, eta ostiralean ber-

**800 zenbaki saldu
dituzte elkartasun
lasterketan eta 1.600
euro batzea lortu dute
aterpetxerako**

tan zenbaki horiek salgai jarri zituzten, eta bildutako dirua Hernialden kokatutako aterpetxera bideratuko dute. Bada, 800 zenbaki inguru saldu dituztela aipatu dute antolatzaileek, 1.600 euro lortu dituzte, beraz orotara.

Sacemgo zubitik Zubimusura iristen lehen barkutxoa 952 zenbakiduna izan zen, eta jabeak sagardotegian lau lagunentzat otordua eskuratu zuen. Sari horrez gain, gehiago ere banatu zituzten zozketa bidez. Merkatarik elkarteko kideek ikastetxeen parte hartzea eskertu dute, eta baita, Onddo Gazte Asanbladako kideen laguntza ere, ibaian bertan aritu baitziren txalupak jasotzen. Ekitaldia «polita» geratu zela, «gustura» daudela, eta hurrengo urtean ere ziurrenik errepikatuko dutela azaldu dute.



Goiko bietan, Oinargi dantza taldekoak sahararrei dantzak eskaintzen. Behean, txalupatxoak Zubimuxura iristen. I.T.

Agur Tranpazulori

Ostegunean, egun handia ospatu ondoren, asteburuan jai giroak jarraitu du Asteasu partean

Irati Urdalleta Asteasu

Egun bateko atsedendia os-
tean, larunbatean ekin zioten
berri ere festari Santamañan.
Haurrentzako tailerrak eta herri
bazkariarekin batera, Ostolaza
eta Ezkerra aritu ziren trikitiare-
kin. Igandean, berri, indar eta
abilezia erakustaldia eman zu-
ten harri-jasotzaile eta aizkola-
riek Asteasun. Aurretik eta on-
doren dantzarako aukera ere
izan zuten herritarrek Laja II.ren
eta Lutxurdioren trikiti doinue-
kin.

Herri kiroletan aizkolariak eta
harri-jasotzaileak izan ziren pro-
tagonista nagusiak. Mikel Lope-
tegi *Urta* aritu zen harria altxa-



Ermita eta elkartaren bueltan jendetza bildu zen igandean. IRATI URDALLETA

tzen eta Aratz Mugerza eta Julen
Kañamarek aizkoran. Azken hon-
en aitak motozerrarekin era-
kustaldia ere egin zuen, bertan
elkartu zirenen harridura eragi-
nez.

Festak igande arratsaldean ja-
rraitu zuen. Hain zuzen, herriko

harri tira taldearen eta astoaren
arteko erronka izan zen eta ilun-
tzean Tranpazulo jaitsita ia
amaitutzat eman zituzten aur-
tengo jaiak. Gauean Laja II eta
Lutxurdiorekin erromeria izan
zen, eta honenbestez, datorren
urtera arte agurtu dituzte jaiak.



KANPUSA ARRATZAINEN

**Azken urteetako ohiturari jarraituz, uztailak 12an hasi eta 24ra bitartean, Billabona FKEko Udako Futbol Kanpusean parte hartzen ari dira 2007tik 2011ra bitartean jaiotako Aiz-
tondo bailarako eta inguruko 60 neska-mutil.** ATARIA



BONBERENEA TXAPELKETA

**Zortzi talde aritu ziren lehiari larunbatean Bonbereneako XIV. Futbol txapelketan. Amaieran, Ziparrakos taldekoak atera ziren garaile. Parte hartzaile guztiek elkarrekin, parri-
llada egin zuten txapelketa borobiltzeko.** J.M.



BIDANIAK AURRE HARTU DIO ALBIZTURRI

**Albizturko Santa Marina auzoko jaien barruan, Bidania-Goiatzen eta Albizturren arteko de-
safioa izan zuten igande arratsaldean. Azkenean, bidaniarrak atera ziren garaile. Gorritz jan-
tzi zen talde bisitaria eta zuriz etxekoak. Hainbat proba izan zituzten aurrean: ergometroa,
trontza, kizkiekin sagarrak biltzea, ingudea, txingak, lokotx biltzea eta korrika. Azkenean,
sokatiran erabaki zen nor zen irabazlea.** I. URDALLETA



1 TXINDOKIKO ITZALA Abentura Parkea

Bi lagunentzako bina sarrera

txindokikoitzala.com/eu/
info@txindokikoitzala.com
628 947 253 | 943 654 757
ABALTZISKETA

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



harpidedun izateak badu saria zozketa

2 TXURI URDIN irristaketa libre

Bi lagunentzako bina sarrera

Anoeta pasealekua, 24
DONOSTIA
Tel.: 943-46 44 04
www.eltxuri.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**



3 LEARTIBAI ondarearen kalitatezko kontserba eta produktu sorta

Laneko Koop. Elkartea
Okamikako industrialdea, 2 5 A
48289 Gizaburuaga.
94 684 20 26
www.bbkazoka.eus/eus/kolekzioak/laneko

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**



Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu www.ataria.eus webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

GTX Festa egin dute Zizurkilen

Ostiralean hasi eta igandera arte, Aiztondoko Gazte Asanbladak hainbat ekitaldi antolatu ditu, Kaxilda gaztetxearen hiru hilabeteko jarduna ospatzeko

Jon Miranda Zizurkil

Hiru hilez bailara birsortzen lelopean ostiralean abiatu zuen asteburua Aiztondoko Gazte Asanbladak. *Arteaz* izeneko mural margoketaren ondotik, arroparen kolektibizazioa zabaldu zuten plazan. Gauean, aldiz, kontzertu arrakastatsuak izan zituzten Zizurkilgo Kaxilda gaztetxean.

Larunbatean, besteak beste, Esteban Zamorak, *Estado de excepción y estado de guerra* liburuaren aurkezpena egin zuen gaztetxean eta ondoren bertso bazkaria egin zuten. Maialen Akizu, Eli Pagola eta Aitor Bizkarrak izan ziren Zizurkilen, Amaia Agirreren esanetara. Arratsaldean ipuin poema sinfonikoa eta bakarlaria aritu ziren.

Illunjako industriagunean espazio bat okupatu eta Kaxilda



Esteban Zamorak liburu aurkezpena egin zuen larunbatean gaztetxean. ATARIA

gaztetxea jarri zuen martxan joan den apirilean. Hiru hilez «erresistitzen» daramatela ospatzeko egitaraua da asteburuan burutu dutena.

Igande goizean, umeen jolas

kooperatiboak egin zituzten, Kaxildaren bila ibiltzeko; eta arratsaldean *La haine* filma ikusteko aukera izan zuten bertaratutakoei, antolatu zuten zine forumarren barruan.



AZOKA ARRAKASTATSUA

Villabonako Irrintzi elkarteak antolatuta, jende asko bildu da ostegunetik igandera bitartean ospatu den XXIII. Garagardo Azokan. 27 garagardo mota ezberdin dastatzeko aukera izan da, hainbat jakirekin batera. Orain azpiegiturak desmuntatzen ariko dira elkarteko boluntarioak, bihar guztia prest egon dadin, Santio jaiei hasiera emateko. J.M.



IRURAKO GAZTEAK BAT EGINIK

25 bat gazte bildu ziren larunbatean Irurako IV. Gazte Egunean. Plazan jolasak egin zituzten goizean bi taldetan banatuta, eta gero, bazkaria izan zuten. Egun osoko egitaraua izan zuten larunbatekoa, izan ere, bazkalostean bingoa eta poteoa izan zituzten eta gauean, berriz, afaria. J.M.

‘Tolosaldeko Ataria’-ko kolaboratzailea izan nahi?

‘Tolosaldeko Ataria’-k komunikazio proiektuan parte hartzeko aukera eman nahi dizu. Ikasturte berriarekin kolaboratzaile, iritzi emaille, irrati saio gidari edota komikigile izan nahi baduzu, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edota deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira.

Gustuko duzun hori egiteko aukera zabaldu nahi dizugu, ez galdu aukera!



Ligan laugarren postura jaitsi da Tolosaldea trainerua



Tolosaldea trainerukoak, larunbatean, Sestaoko banderan. IÑAKI SUAREZ

Asteburuko bi estropadetan, Sestaoko banderan zortzigarren eta Orion bosgarren egin dute

Imanol Garcia Landa

ETE ligako emaitzei begiratuta, «ez da asteburu ona izan», laburbildu du Itsaso Aizpurua Tolosaldea traineruko arraunlari zizurkildarrak. Sestaoko banderan zortzigarren postua lortu zuten eta Orio Kanpina Banderan bosgarrenak izan ziren. Asteburua eta gero, laugarren postuan daude ligako sailkapenean eta lehenengo biak asko urrundu dira.

Larunbatean, Sestaoko estropadan, joaneko luzea ondo egin zutela dio Aizpuruak, baina zia-bogan Hibaikakoekin arazoak izan zituztela dio: «Ukitu egin ginen, eta horrek burua joanarazi egin zigun, despistatu egin ginen eta arrankatzea kosta egin zitzaigun. Azkenean hor joan ziren segundoak». Aizpuruak gertatutakoa azaldu du: «Ziabogara bateratsu iritsi ginen, eta bira ematen ari ginela ikusi nuen Hibaikako aurrekoak ezin zuela arraun txikia atera. Segi eta segi, eta gure kontra zetozen, ezin zuen atera eta talka egin genuen».

Oso segundo gutxitan talde asko sartu ziren. Deustu izan zen irabazlea, denboraldiko lehen bandera lortuz, 11.02 denbora eginez. Tolosaldeak 11.14 egin zuen, zortzigarren amaituz. Bigarren txandan haizea altxatu zen eta zailagoa izan zela arraun egitea ere azaldu du Aizpuruak. «Arraunean, bestela, gustura sentitu ginen», esan du. «Maila oso altua dago eta akats bakoitza oso garesti ordaintzen da».

Igandean Orion jokatu zuten estropada. «Joaneko luzera ondo egin genuen, besteekin nahiko paretsu joan ginen, eta zia-boga egin eta itzulerakoa egiten hasi ginenean, arazoak izan genituen audioarekin, eta patroiak ezin zion entzun entrenatzaileari», esan du Aizpuruak. «Hasiera batean esan ziguten hirugarren katean mantentzeko, baina arraunean geundela esan nahi zigun bigarren kalera joateko, hobe zelako. Halere, ez ginen ari nahi bezala arraunean, ez ginen gustura aritu». Zumaiak irabazi zuen estropada, 11.31 denborarekin, eta Tolosaldeak 11.53 egin zuen, bosgarren iritsiz.

<<GURE ARTEAN ANIMATZEN>>

Sailkapenean orain laugarren postuan daude Tolosaldeakoak, Deustu aurretik jarri baitzaie.

ETE LIGAKO SAILKAPENA

Zumaia	70 p.
Hibaika	69 p.
Deustu	56 p.
Tolosaldea	55 p.
Kaiku	53 p.
Isuntza	40 p.
Hernani	39 p.
San Juan	37 p.
Ondarroa	19 p.
Lapurdi	16 p.
Colindres	8 p.

Kaiku bi puntura dute atzetik. Gainera, Zumaia eta Hibaika asko urrundu dira, eta 15 eta 14 puntutara dituzte Tolosaldea trainerukoak. «Akatsa egiterakoa ez da puntu bakarra galtzen duzula, puntu pila bat galtzen dira eta hor joaten da dena», esan du Aizpuruak. «Kolpe handia izan da asteburua, puntu asko galdu ditugulako, baina gure artean animatzen ari gara eta gogo dugu erakusteko hori baino hobeto dakigula gauzak egiten, eta hurrengo batean aterako zaizkigula».

Hurrengo bi estropadak aste honetan dituzte. Lehenengoa etzi, Lekeition, eta larunbatean Colindresen. «Gogoz gaude, asteburukoa gainetik kendu eta puntuak berreskuratzeke», esan du Aizpuruak.

Altunak, Artolak eta Urretabizkaiak aurrera egin dute Bizkaia Torneoan

Altunak eta bere taldekideek etzi dute finalerdia, tartean Jaka aurkari dutela; Baikokoek, igandean

Erredakzioa

Formatu berezia du Bizkaia Torneoak. Enpresa bakoitzeko hiru talde osatu dituzte, eta bakoitzean lau pilotari sartu. Eskualdeko lau pilotari daude lehian torneo horretan, eta asteburuan jokatzen ari ziren hirurak pasa dira finalerdietara: Gorbea taldean dagoen Altuna amezketarra, eta Sollube taldean dauden Artola alegiarra eta Urretabizkaia ikaztegietarra.

Gorbea taldekoek 2-1 irabazi zieten Gonekorta taldekoei, denak Aspe enpresakoak, Barakaldon jokaturako kanporaketan. Kantxa osoan ez ziren oso ondo hasi Gorbea taldekoak, Dariok 2-18 galdu baitzuen Zabalaren aurka, kantxa osoan jokaturako buruz burukoan. Ondoren, binakako norgehiagoka etorri zen, eta hor Altuna III.ak eta Rezustak puntua lortu zuten, 18-22 irabazita Ezkurdia eta Martijari. Azken partida izan zen erabakiorra,

lau eta erdikoa, eta hor Retegik 11-18 irabazi zion Peio Etxeberriari, finalerdietarako pasea lortuz.

Baikoren adarrean, Sollubeko taldeak hiru partidak irabazi zituen Kolitzaren aurka. Urretabizkaia II.ak Asier Agirrerri 14-18 irabazi zion kantxa osoan. Binakakoan Artolak eta Albisuk errematea eman zioten kanporaketari, Urrutikoetxea eta Mariezkurrenari 20-22 irabazita. Kaiolaren barruan, Bakaikoak hirugarren puntua lortu zuen Victorren aurka 10-18 irabazita.

Orain finalerdiak iritsiko dira. Gorbeakoek etzi jokatuko dute Oiz taldekoen aurka, Aspe enpresako finalista erabakitzeke. Ermuan izango da jaialdia, 17:30etik aurrera. Oiz taldean Elezkano II-Zabaleta binaka, Jaka lizartzarra kaiolan eta Elordi kantxa osoan ariko dira lehian.

Beste finalerdia Zierbenan jokatuko da, igande honetan. Sollube taldekoek Anboto taldea izango dute aurrean: Olaizola II-Aretxabaleta binaka, Laso kaiolan eta Arteaga kantxa osoan. 17:00etan hasiko da jaialdia eta Baiko enpresako finalista erabakiko da bertan.

Ander Uranga, bosgarren Europakoan

Atleta anoetarrak 4x100 metroko proban parte hartu du Espainiako selekzioarekin

Erredakzioa

Anoeta Europako 20 urtez azpiko Atletismo Txapelketan parte hartu du Ander Uranga Tolosa CFko atleta anoetarrak. Espainiako selekzioak hautatuta, 4x100 metroko proban lehiatu da, bosga-

rren postua lortuz. Uranga Bernat Canet, Juan Gonzalez eta Oscar Izquierdorekin batera aritu da txandakako proban.

Finalean sailkapeneko proban baino denbora hobe egin zuten, eta 40,53ko denborarekin bosgarren postuaren lehian izan ziren Poloniako selekzioko atletekin batera, bukaera arte. Proba seigarren bukatu bazuten ere, Britania Handiako selekzioa kanporatu egin zuten eta, beraz, bosgarren postuarekin geratu ziren Uranga eta taldekideak.

Jaime Caballero eta Paula del Pozo, eskualdeko azkarrenak

Erredakzioa

Asteburu honetan bi igeriketa proba izan dira Getaria eta Zarautz arteko uretan. Horieta bat, Getaria-Zarautz izeneko, itsas zeharkaldietan ezagunena, eta bertan eskualdeko azkarrenak Jaime Caballero zizurkildarra eta Paul Del Pozo alegiarra izan dira. Caballerok 37.49ko denbora egin du eta sailkapen orokorrean 37. eta gizonezko master mailan 4. izan da. Eskualdeko bigarrena Ioseba Mateos ibartarra izan da 38.26 denborarekin, 33. orokorrean eta 21. senior gizonezkoetan eginez. Hirugarren Asier Labaien tolosarra izan da, 38.54 denborarekin 40. orokorrean eta 3. master+ gizonezkoetan eginez.

Paula Del Pozok 40.52ko marka egin du eta sailkapen orokorrean 83. izan da eta senior emakumezkoetan 9. egin du. Bigarrena eskualdetik Zuriñe Del Pozo alegiarra izan da, 43.40ko denborarekin 168. orokorrean eta 15. senior emakumezkoetan eginez. Hirugarren Erika Amundarain billabonatarra izan da, 44.53ko denborarekin 237. orokorrean eta 20. senior emakumezkoetan eginez.

Beste proba, lehen aldiz egin-dakoa, Zarautz-Getaria-Zarautz proba izan da. Gizonezkoetan eskualdeko lau parte hartzaile izan dira, eta hurrenez hurren Jaime Caballero, Ioseba Mateos, Kepa Jauregi tolosarra eta Xabier Jauregi tolosarra helmugaratu dira. Emakumezkoetan eskualdetik Amaia Loidi anoetarra izan da parte hartzen bakarra

Euskal Herriko Sega Txapelketako finalean izango da Jokin Etxeberria

Etxeberria bere multzoko azkarrena izan da; eskualdeko beste hiru segalariak ez dira pasa finalera

Erredakzioa

Jon Otegi, Julen Gabirondo eta Iban Pardo izango dira Bidaion bizi den Jokin Etxeberria amasarraren lehiakideak, igandean Asteasun jokatu den Euskal Herriko Sega Txapelketaren finalean. Igande eguerdian jokatu zen Aian Euskal Herriko Sega Txapelketako kanporaketa. Bederatzi segalari izan ziren azkenean parte hartu zutenak, guztiak gipuzkoarrak, Eneko Bilbao bizkaitarra azkenean ez baitzen izan kanporaketan.

Eskualdeko lau segalarik parte hartu zuten. Etxeberriaz gain, Jesus Mari Ormaetxea Urki Alegian bizi den orendaindarra, Arkaitz Arteaga baliarraindarra eta Mikel Lizartza tolosarra.

Ordu erdiko lana egin behar izan zuten eta bi multzotan aritu ziren segalariak; multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuak pasa dira finalera. Etxeberria B multzoko lehen sailkatua izan zen, 1.358 kilo belar ebakita. Multzo horretan bigarren Iban Pardo izan zen, 1.309,5 kilorekin. Hirugarrena Urki sailkatu zen, bigarrenetik gertu, 1.291 kilo moztuta. Ondoren Jokin Urretabizkaia 1.125 kilorekin, eta, azkena, Suharri Irazustabarrena 1.068,5 kilo ebakiz.

A multzoan lau segalari aritu ziren, eta bertako lehenengoa Jon Otegi izan zen 1.403,5 kilo



Finalerako sailkatu diren lau segalariak. Ezkerretik bigarrena, Jokin Etxeberria. ASIER IMAZ



Jesus Mari Ormaetxea 'Urki'. A. IMAZ



Mikel Lizartza. A. IMAZ



Arkaitz Arteaga. A. IMAZ

ebakita, eta, bigarren Julen Gabirondo, 1.403 kilo ebakita, hau da, kilo erdi gutxiago bakarrik. Hirugarren Arkaitz Arteaga izan zen 1.288 kilo moztuta, eta, lau-

garren, Mikel Lizartza 1.150 kilorekin. Bi multzoetako sailkapenak ikusita, kilo gehien moztu zituzten segalariak pasa dira finalera. Finala igandean, uztailaren

28an, izango da eta Asteasuko Bulano baserriko zelaietan jokatu da. 12:00etan hasiko da saioa eta lau segalariak ordubeteko lana egin beharko dute.

Hilberriak eta urteurrenak

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Maria Dolores Sukia Aranburu

(Mertxe Altuna gure lankidearen ama eta gure lankide ohia)

Atzo hil zen, 87 urte zituela.

-Goian bego-

Maizpide Euskaltegiak bat egiten du familiaren saminarekin une latz hauetan.



LAZKAON, 2019ko uztailaren 23an



ASTEARTEA, 2019KO UZTAILAK 23
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.info
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.info

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.info
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.info
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.info
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.info
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.info
Bezere arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

ASTEARTEA 23

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Rainbow tabernan herriko Habi taldeak kontzertua eskainiko du, 19:00etatik aurrera.

Tolosa. Zinea kalean izango da, San Esteban auzoan. 22:30ean, *Campeones* filma ikusteko aukera izango da aire librean.

ATARIA IRRATIA

Euskal musika. Egun osoan zehar entzungai.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
16:30. Elkarrizketa (Joserra Senerena).
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
22:15. Ireki Xaxa (Ibon Muguerza).
22:45. Zer jan.
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa.
Lejeune Maset, L.
Euskal Herria kalea, 24.
Telefono zenbakia: 943 67 32 74.

Gauetako.
Azpiroz Galarza, L.
Amaroz auzoa, 9.
Telefono zenbakia: 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur.

Bero zakarra. Hego-haizeak eta erdi-mailako geruzetako aire beroak lurrazalean termometroak balio oso altuetan egotea ekarriko du eta eguneko erdiko orduetan Tolosaldeko txoko guztietan 38-40 gradutan joko du goia. Ezin da baztertu txokorik beroenetan 41 edo 42 gradu harrapatzea. Arratsalde erditik aurrera eta batez ere, iluntzean, ipar-haizea sartuko da eta termometroak nabarmen egingo du behera. Zeruan urdina nagusituko da ia egun osoz, nahiz eta, iluntze aldera bero-hodeiak garatuko diren eta ezin den baztertu ekaitzen bat lehertzea.



Bihar.

Bero handia oraindik. Nahiz eta, termometroak koska bat behera egin, oraindik ere bero egiten jarraituko du. Maximoak 36-38 gradutan kokatuko dira eguneko erdiko orduetan. Zeruan goizean hodei hondar batzuk agertuko dira eta egunsentian ezin da baztertu ekaitz hondarren bat lehertzea. Ondoren, egun osoan zehar zerua ia urdin mantenduko da. Arratsalde erdi, eta batez ere, iluntzean berriz ere bero-hodeiak garatuko dira, nahiz eta, ekaizetara ez duen joko.

Tolosaldeko ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

'Pinotxo'-ren lan berria prestatzen

Teatro Gorakada talde bizkaitarra 'Pinotxo' izeneko ikuskizun berria prestatzen aritu da azken asteetan, Tolosako Topic-en

Erredakzioa Tolosa

Topic zentroak, hasiera-hasieratik bere instalakuntzak eskuragarri jarri ohi dizkie konpainiei sormen egonaldiak egiteko. Hori aprobetxatuz, egun hauetan, Teatro Gorakada talde bizkaitarra ikuskizun berria aritu da prestatzen, Tolosan.

Talde hau 1989. urtean hasi zen haurrentzako antzezlanak sortzen, ipuin klasikoetatik abiatuta. Orain arteko ikuskizun guztietan txotxongilo eta aktoreen arteko lana uztartu dituzte, eta orain, beraien ikuskizun berria izango den *Pinotxo*-ren xehetasun guztiak orrazten ari dira: «Egonaldian, testua sortzen ari gara, irudia eta ikuskizunaren antzerkigintza alderdi osoa eta baita aktore eta keinu bidezko estetika ere», dio Alex Diazek, konpainiako zuzendari artistikoak. «Hutsetik abiatzen gara, guk 'laborategia' deitzen diogun une batean gaude, eta horretarako egonaldia beharrezkoa da. Antzerki ideia batetik gatoz baina gero bertan behera uzten dugu, aktorearen lekutik aurre egiteko modua bilatzen dugulako. Elementuak zati garrantzitsu bat osatzen duten prozesu bat da», gehitzen du Diaz-ek.

«Hasieratik oso garbi genuen gauza bat da», dio Idoya Otegi



Gorakada taldea ikuskizunaren prestaketa lanetan. ATARIA

Topic-eko zuzendariak. «Duela 30 urte, Topic egitasmo bat bakarrik ez zenean, txotxongiloen beharretara egongo zen espazio baten beharra ikusten genuen, konpainiek espazio horretan bizi eta ikuskizunak sortu ahal izateko».

«Pinotxo oraindik imajinatzen ari garen zerbait da, baina ez da txotxongilo manipulatu izango, bizitza hartzen duen eskultura batetik hurbilago dago», azaldu dute. Antzezlanaren eszenan bi aktore eta musikari bat bakarrik egongo direla aurreratu dute, eta zuzeneko musika egongo dela, klarinetea eta saxofoia-ekin. Musika partitura ere sor-

men egonaldian sortu dute. Duela hiru hilabete izan zuten lehen kontaktua Topic-ekin. eta 12 pertsonako taldea da: «Hemen egin duguna lehen egitura da; eszenen eta edukiaren aurre gidoia egin dugu eta Topic-etik oinarritzko egitura batekin ateraga», azpimarratu dute.

Gorakada taldea, aste honetan, Bilboko Harrobira itzuliko da, eta uztailean 28rako amaituko dute lana. Ikuskizuna urriaren 18an estreinatuko dute Palma de Mallorcako Haurtzaro eta Gaztarorako Jaialdian. Azaroan, berriz, Topic zentroan izango dira, eta *Pinotxo* aurkeztuko dute Titirijai Jaialdian.



galtzaundi
taberna

Ogitartekoak
Pintxoak
Errazioak
Plater konbinatuak



San Bartolome plaza | IBARRA | ☎ 691 080 726